



❖ AHT GELDITU Trenari buruzko hitzaldia gaur

Abiadura Haundiko Trenaren inguruko hitzaldia izango da gaur, Hernaniko AHTren kontrako taldeko kide baten eskutik. Arratsaldeko 19:30-etan izango da, Biterin. Bihar trenaren kontrako asteari jarraipena emanez, parodia izango da arratsaldeko 18:00etan, herriko kaleetan. Arratsaldeko 19:30etan kontzentrazioa deitu dute Apeaderoan. ||

Hernanin amiantoa izan lezaketen 268 etxebizitza eta 88 enpresa daude

Udalak inbentarioa egin du INEMekin elkarlanean, eta atzo eman zituzten emaitzak. Udalak gaiaren inguruko ordenantza bat atera nahi du.

HERNANIKO Udalak amiantoa izan lezaketen eraikinen inbentarioa egin du, INEMekin elkarlanean eta datuek diote 268 etxebizitza daudela amiantoa izan lezaketena, 88 enpresa eta 12 baserri inguruetako eraikin. Txabola teilatuetan, garaje teilatuetan, uren kanaletan, tximinietan, saneamendu tuboetan, baratze ur biltegietan eta abarretan azaltzen da amiantoa, ezaugarri teknologiko onak izanda, nahiko merkea delako. Baina osasunerako kaltegarria da, biriketako gaitza edo minbizia sortu baitezake besteak beste, kasu askotan amianto fibrekin kontaktu haundia izan eta 10-20 urtera. Hori dela eta, gaur egun galarazia dago Europar Batasunean amiantoa duten materialak erabiltzea, baina garai batean jarritakoa hor dago eraikin askotan.

1960-1984 urte artean

Amiantorik gehien erabili zen aldia 1960-1984 urte artekoa



Marian Beitialarrangoitia Alkatea erdian, Marijo Garcia eskubian eta Olatz Urrutibeaskoa ezkerrean.

izan zen. Udalak egindako inbentarioak, herriko eraikin guztiak arakatu ditu kanpotik, amiantoa izateko arriskurik baduten ikusteko, baina barrutik arakatu dituen bakarrak 60-84 urte artean egindakoak dira. Inbentarioa egiten hasteko lehenengo erabakia 2005eko apirilko plenoan onartu zuen Udalak, CCOO sindikatuak aurkeztutako mozioa hain zuzen ere. Mozio horretan udalak zenbait konpromiso hartu zituen, besteak beste, amiantoa duten eraikinen

inbentarioa egitea. Lehen fasean (2005-2006) amiantoa izan lezaketen Udal eraikinen inbentarioa egin zuen Udalak aparejadore bat kontratatuta; eta bigarren fasean (2006-2007) amiantoa izan lezaketen herriko eraikinen inbentarioa egin dute, bi aparejadorek, 2007ko urritik 2008ko martxora. Atzo, inbentario horren emaitzak azaldu zituzten prentsaurrean Marian Beitialarrangoitia Alkateak; Marijo Garzia Lan Arrisku Prebentzio, Segurtasun eta Osasun Teknikariak

eta Olatz Urrutibeaskoa Ingu-rumen Teknikariak.

Ordenantza berria

Hernanin egin den bezalako inbentarioa oso herri gutxitan egin da, atzo prentsaurrean azaldu zuten, baina oraindik pauso bat gehiago eman nahi du Udalak, ordenantza bat sortzea, eta horren eskaera egin dio INEMi. Udal ordenantza horrek, amiantoa duten eraikinak eraberritzean jarraitu beharreko protokoloa bilduko luke. ||

Saharako haurrak etxean hartzeko programari buruzko bilera gaur

BADIRA urte batzuk uda partean Saharako errefuxatu kanpamenduetako haurrak Hernanira etortzen direla bi hilabete pasatzera. Udalak aurtan ere programa bera antolatu du, eta nahi luke Hernaniko familiak etxean haurrak hartzea animatzea,

oraindik ere ez baita familiarik animatu. Herritarrak animatze aldera gaur bilera informatiboa egingo dute, Biterin arratsaldeko 19:30-etan. Bestalde, Saharari buruzko argazki erakusketa ere ikusi ahal izango da, Biterin, ostiralera arte. ||

Tibeteko argazkiak eta monjeek egindako mandalak erakusgai

TIBETI buruzko jardunaldiak hasi ziren atzo, Udalak eta Kooperazio taldeak antolatuta. Gaur erakusketa ikusi ahal izango da, Tibeteko argazkiekin eta monjeek egindako mandalekin osatutakoa. Mandalak budismoko sinbolo espiritualak dira, ma-

razki modukoak. Etxeak apaintzeko edota santifikatzeko erabiltzen dira, baita erritual erlijiosoetarako ere. Mandalak material ezberdinekin egin daitezke: arroza, loreak, hautsa... Erakusketa osteguna bitartean ikusi ahal izango da, Biterin. ||

❖ KARBONERA

'Haizea eta sustraiak'

Haizea eta sustraiak dokumentala ikusteko aukera izango da gaur Karboneran. Dokumentala Txikiri buruzkoa da eta bere senitarako, lagun eta abokatuen testigantzak jasotzen dira. 20:00etan, Karboneran. ||

❖ AZOKAK

Bigarren eskuko azoka larunbatean

Bigarren eskuko azoka izango da larunbatean Atsegindegin. Oraingo honetan San Markos Mankomunitatea izango da postuak jartzen arduraduna, izan ere herriz herri dabil bigarren eskuko azoka antolatzen. Goizeko 10:00etatik 14:00etara, Atsegindegin. ||

❖ UDALA

Hirigintza batzordea gaur

Hirigintza batzordea izango da gaur udaletxean, besteak beste joan den asteko Hirigintza batzordean mahai gainean geratu zen gai batetaz hitz egingo dute, Santa Barbarako harrobia betetzeko eta ingurua txukuntzeko lanak adjudikatzea. Batzordea arratsaldeko 18:00etan izango da. ||


Yaben English School
Hurriaga z/g. 20120 Hernani Tel: 943 33 17 63

UDARAKO IKASTAROAK

UZTAILA IKASTARO INTENTSIBOAK edo guztiztat	UZTAILA UDALEKUAK 4 urte - 10 urtekoartzer
---	--

MATRIKULAK EKAINAREN 1etik 20ra
Goizean, 10:00-12:00 - arratsaldean 17:00-19:00

University of Cambridge Local Examinations Syndicate. Zentro baimendua ES 409

Hernaniko Udala  Hernani-Gipuzkoa

Aurtengo udan Saharako haurrik ez Hernanin?
Famili hartzaile bila gabiltza. Animatu!

BILERA INFORMATIBOA: MAIATZAREN 28AN 19:30EAN BITERIN.

INFORMAZIOA ETA GUTUN EGITEA	Udal lankidetzari arloa 943-337017 - 943-336802 - manjo-m@hernani.net Epea: maiatzak 30
------------------------------------	---

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
FARMAZIAK ● Eguz: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793 ● Gauz: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Goizean zehar eguzkia lainoen artean izango da. Arratsaldean lainoak ugari eta zaparradak botako ditu. Tenperaturek gora egingo dute.

BIHAR Antzeko eguraldia, goizean lainoak eta ostarteak tartekatuko dira. Arratsaldean bero lainoak garatuko dira eta zaparradak botako ditu.



Emakume zentroko kideak, egindako lanak ikusten, Biterin.

Gogo eta pazientzia haundiaren emaitza

HALAXE aitortu dute *Elkano* 17 emakume zentroko kideek, Biteri kultur etxeko erakusketan. Bolilloak, gantxilloak, puntua, dekorazioa, hondarreko koadroak, estainuz apaindutako ispiluak... denetik dago ikusgai, ostiralerara arte, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Asko eta asko arte lanak dira, baina Elkano kaleko emakumeen hitzetan «edonork» egin litzake, gogoia eta denbora eskainiz gero.

Berrogei bat lagun

Elkano kaleko ikastaroetan 40 bat emakume dabilta, 5 irakaslek gidatuta. Urtean zehar egindako lanak daude Biterin ikusgai, asko eta asko dagoeneko emanak badituzte ere: «egiten ditugun lane-

tako asko erregalo ematen ditugu eta horregatik lanetako asko ez daude hemen» esan diote Kronikari.

Jardunaldi ugari

Elkano 17ko emakume zentroak gauza asko egiten ditu eskulan ikastaroez gain. Gaur egun 120 bazkide inguru dira eta gimnasia esaterako, 65 lagunek hartzen dute parte. ||

Hernaniko paletariak eskolarteko finalean

Langile eta Urumeako pala bikoteak fin aritu dira txapelketan.

ESKOLARTEKO txapelketan Hernaniko ikastetxe ezberdinetako kirolari gazteak fin aritu dira. Joan den astean jokatu ziren zenbait final eta futbolean eta paletan hernaniarrak finaletan izan dira.

Palari dagokionean, infantil mailako Urumea taldea eskolarteko txapelduna izan da Ataungo taldearen kontra irabazita. Alebin mailako Langile A taldea azpitxapelduna zan da eta irabazlea Asteasuko taldea. ||



Langile A eta Urumeako paletariak.

❖ ARGAZKI RALLYA

Argazkiak

Torres argazki dendan ikusgai

Argazki rallyko argazkiak ikusteko aukera izango da gaurtik aurrera Torres argazki dendako eskaparateko pantailan, udaletxe atzekaldean. ||

❖ LASARTE

Jolasak eta antzerkia gaur, Zabaletan

Zabaleta auzoko (Buenos Aires) jaiek gaur izango dute jarraipena. 18:00etan haurrentzako jolasak izango dira; 19:30etan antzerkia izango da; eta 20:00etan japoniar bonbak botako dituzte. ||

◆ MUS TXAPELKETAK

Gaurko partidak

Xalaparta elkartearen honakoak jokatu dira. Justo-Javi/Ruiz-Ruiz; Txema-Goyo/Portillo-Ivan; Jesus-Gorrotza/Bosteko-Agustin; eta Isidro Gil-Peli-Roman. Aralar tabernan beste partida hauek jokatu dira: Josu-Gorka/Joseba-Karlos; Javi-Biki/Ceci-Bitxo; Javi-Patxi/Felix-Javi; eta Rafa-Kaki/Jonkar-Joseba. ||

❖ GALDUTAKOAK

'Border Collie' txakur bat galdu da Martindegin

Border Collie arrazako txakur bat galdu zen atzo Martindegin. Txuri-belta da eta koilarerik ez du. Inork ikusiko balu deitu telefono honetara: 610 28 91 06. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pixua salgai Hernanin. 3gela, egongela, sukaldia eta komuna. Kalefazio zentrala eta igogailuarekin. Deitu: 620 82 35 15.

Elgoibarko Gaztelekuarekin udaleku itxietara (Mendigorria, uztailak 9tik 16ra) joateko hezitzailea behar da (kontratua) Tfnoa: 943 74 32 28 (Argitze) edo gazteleku@elgoibar.org

Sukalderako laguntzailea behar dugu Igeldoko sagardotegi batean lan egiteko, asteburuetan. Interesatuek deitu: 635 746 559

Pixua salgai Floridan (La Cumbren). 60 m2 ditu, 2 logela, egongela, sukaldia, komuna, 60 m2ko garbata eta trasteroa. Deitu: 627 501 957

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P- 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta *Kuperros*. Bibrazio bidezko terapiarekin egindako gorputz tratamenduak eta "vacumterapia". Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

JANTZI DENDA

AMBOTO

LIKIDAZIOA
AZKEN ERREMATEA

%60ko deskontua

DESKONTU HAUNDIAGOA
JANTZI LOTEETAN

Nagusia 43 *Amboto Jantzi denda* - *Hernani*